

Deialdia, udaltzain laguntzaile izateko lanpostua aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda egiteko

Deialdiaren xedea eta arau orokorrak

Deialdi honen xedea da udaltzain laguntzaile izateko aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrenda bat osatzea, Atarrabiako Udalean sortzen diren aldi baterako beharrei erantzun ahal izateko.

Izangaien zerrenda honek indarrrik gabe utzi eta ondoriorik gabe utziko du deialdiko lanposturako aldi baterako kontratatuak izateko izangaien beste edozein zerrenda.

Deialdi hau Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42.2 artikuluan aldi baterako langileak hautatzeari buruz ezarritakoari eta aplikatzekoak diren gainerako araei jarraikiz eginen da.

Lanpostuaren ezaugarriak

Udaltzain laguntzaile lanpostuak eginkizun hauek ditu:

- ondasun, zerbitzu, instalazio eta bulego ofizialak zaintzea eta jagotea
- bide-trafikoa zirkulazio-arauei arabera antolatzea
- udaltzaingoetako kideei laguntzea eta babes ematea herritarren segurtasunerako, babes zibilerako eta herritarrei laguntzeko eginkizunetan
- arau administratiboak betetzen laguntzea
- oro har, dagokion udaltzainari laguntzea, haren zuzendaritzapean.

Soldata: Nafarroako Administrazio Publikoetako langileentzat ezarritako D mailari dagokion hasierako soldata gehi Udalaren plantilla organikoan ezarritako osagarriak (30.500 € gordin urtean, gutxi gorabehera). lanaldi osoko kontratuetan)

Hizkuntza-eskakizuna: merezimendutzat hartuko da C1 mailako euskararen ezagutza, hizkuntzetarako Europako erreferentzia-esparru komunean ezarritakoari jarraiki.

Izangaien betebeharrak

- a) Nafarroako Segurtasun eta Larrialdietarako Eskolatik udaltzain laguntzaile izateko gaikuntza eskuratua izatea, horretarako luzatua.
- b) Eskola Graduatua, Lanbide Heziketako lehen mailako titulua edo baliokidea izatea.
- c) B motako gidabaimena izatea
- d) Enplegu-bulegoetan izena emanda egotea enplegu-eskatzailerik gisa edo enplegua hobetzeko eskaera gisa
- e) Esleituriko eginkizunak betetzeko beharrezko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea
- f) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik edo gabeturik ez egotea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetatik baztertuta ez izatea

Eskabideak onartzea

Prozesuan parte hartu nahi dutenek Atarrabiako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera, beren egoitza elektronikoaren bidez, 2026ko maiatzaren 29ko (ostirala) 14:30ak baino lehen, I. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera. Honako agiri hauek erantsi beharko dituzte:

- Nortasun Agiri Nazionalaren edo nortasuna egiaztatzen duen agiri ofizial baliokidearen fotokopia
- Udaltzain laguntzaile izateko gaikuntzaren fotokopia, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emana
- Deialdian eskatutako titulu akademikoaren fotokopia
- Euskararen ezagutzari dagokion titulazioaren fotokopia

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da. Hura buruturik, Atarrabiako Udaleko alkate udalburuak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko.

Izangai baztertuek hiru egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrendak argitaratzen direnetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta erreklamazioei erantzun ondotik, alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko. Izangai bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da. Zerrenda horretan hautagaien izen-abizenak jasoko dira, eta baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoia ere bai.

Deialdiaren epaimahaia

Epaimahaia honako hauek osatuko dute deialdia ebazteko:

- Alkatea
- Atarrabiako udaltzainburua
- Langileen ordezkariak izendatutako ordezkari bat
- Giza Baliabideetako zuzendaria
- Udaleko idazkaria

Epaimahaia probak hasi aurretik eratuko da, eta ezin izango da eratu ez jardun kideen gehiengo osoa bertan ez badago. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu oinarri hauek ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Hautaketa-prozesua

Hautapen prozesua. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira probak hasteko tokia, eguna eta ordua. Gainontzeko proben hurrenez hurreneko iragarkiak 48 ordu lehenago, gutxienez, argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesuak oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea izango ditu.

Oposizioaldian lanpostuaren eginkizunei buruzko proba teoriko-praktikoa eginen da, gai hauei buruzkoa:

- 287/2002 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duena.
- 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa.
- 9/1983 Lege Organikoa, uztailaren 15ekoa, biltzeko eskubidea arautzen duena.

- 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatu eta garatzeko.
- 2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Araudi Orokorra onartzen duena.
- 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzekoa.
- 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoena.
- 202/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa, establezimendu, ikuskizun publiko eta jolas-jardueren katalogoa onartu eta enpresa eta lokalen erregistroak arautzen dituena.
- 201/2002 Foru Dekretua, irailaren 23koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegi orokorra arautzen duena.
- Atarrabiako kale izendegia.

Proba honetan 50 puntu emanen dira gehienez ere, eta puntuazio horren erdia (25 puntu) lortzen dutenek gaindituko dute proba.

Lehiaketa fasean euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da, eta gehienez ere 7,5 puntu lortuko dituzte hizkuntzetarako Europako erreferentziako esparru komunean ezarritako C1 mailako jakite maila egiaztatzen dutenek. Jakite-maila txikiagoa egiaztatzen dutenek balorazio proportzionala lortuko dute.

Epaimahaiak ezarritako hurrenkeran egingo dira probak. Egun batean edo gehiagotan egin ahal izango dira, eta deialdi bakarra egingo da. Izangaiek NANA eraman beharko dute, behar bezala egiaztatuak izan daitezten. Iragarritako egun, ordu eta lekuetan edozein arrazoi dela-eta aurkezten ez direnak baztertu egingo dira.

Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, epaimahaiak zozketa bidez ebatziko du.

Proba bakoitzaren kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak puntuazioak argitaratuko ditu eta 3 egun balioduneko epea irekiko du emaitzen inguruko alegazioak egiteko.

Deialdiaren garapenari buruzko iragarki eta argitalpen guztiak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Udalaren web orrian (www.atarrabia.eus), argitaratuko dira.

Azken ariketaren kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren arabera, izangai bakoitzak lehiaketa eta oposizio faseetan lortu dituen kalifikazioak gehituta, eta alkateari bidaliko dio, hautaketa prozesuaren espediente osoarekin batera.

Atarrabiako Udaleko alkate udalburuak aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda hauek osatuko ditu.

- Gainditu dutenen zerrenda
- Gainditu ez duten pertsonen zerrenda

Izangaien deialdia Atarrabiako Udalak 2016ko ekainaren 28ko bilkuran onartu eta Udalaren webgunean (www.atarrabia.eus) argitaratutako “Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak kudeatzeko arauetan” aurreikusitakoaren arabera egingen da

I.ERANSKINA. Hautaketa-prozesu batean onartua izateko eskabidea

Izen-abizenak

NAN edo agiri baliokidea

Jaiotze data

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua, posta-kodea, herria)

Nazionalitatea

Telefonoa

Posta elektronikoa

ADIERAZTEN DU:

Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala denboraz eta formaz, eta Udaltzain Laguntzaile lanpostuan aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda egiteko deialdian onartua izatea eskatzen dudala

Deialdiaren arauak ezagutu eta berariaz onartzen ditudala, eta deialdian parte hartzeko eskatzen dizkidaten agiri hauek aurkezten ditudala::

- Nortasun Agiri Nazionalaren kopia edo izangaiaren nortasuna egiaztatzen duen beste agiri ofizial baliokideren bat.
- Udaltzaingoko laguntzaile izateko gaikuntzaren kopia, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emana.
- Deialdian eskatutako titulu akademikoaren kopia
- Euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulazioaren kopia (adierazi, hala badagokio)

Horregatik guziagatik,

ESKATZEN DU

Udaltzaingoko Laguntzaile lanpostua aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda bat egiteko deialdian onartua izatea.

(Data eta eskatzailearen sinadura)

ATARRABIAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA